

Hitzetik idatzira, jauzi zaila

UEUko Historia Sailaren historiako oharra

Mikel Aizpuru Murua
EHUko irakaslea, UEUko kidea

Hastapenak

Donibane Lohizunen 1973an Udako Euskal Unibertsitatea lehen aldiz antolatu zenean Historiak presentzia izan zuen bertan eta ez nolanaikoa, ikasgai horren azpian bost hitzaldi bildu baitziren: Piarres Narbaitzen "Nafarroako erreinua nola eta norekin sortu den", Juan San Martinen "Lehengo euskal edergintza: Harri Aroko edergintza, Erdi Arokoa eta Pizkunde arokoa", Joseba Intxaustiren "Ipar Euskal Herria 1870etik 1914rat", Jose Luis Lizundiaren "Geografia politikoaren ixtorioa" eta J. Larramendiren "Gaurko euskal edergintza". Hitzaldi-sorta horrek sailak hurrengo urteetan izango zituen hainbat ezaugarri iragartzen zituen: gaien dibertsitatea, denbora historiko desberdinen azterketa, hiztegi bateratuaren falta, irakasleen aniztasuna eta harreman falta unibertsitate ofizialekin.

Bigarren belaunaldia

Egoera hau 1976/1977 urteetan hasi zen aldatzen. 1976an eman zuen Joseba Agirreazkuenagak UEUko Historia arloko bere lehen hitzaldia, beste askoren aitzindari. Urtebete geroago, Joseba Intxaustiren eskutik, eratu zen Historia Saila. Izan ere, UEUren egoitza berrian, Iruñean, hitzaldi solteen ereduak gainditu eta ikastaro espezializatuen ereduak landu nahi zen. Nafarroako hiriburuan ikastaro sendo eta erakargarria eskaini zuen Historia Sailak. Larraonako ikastetxean 21 hitzaldi entzun ziren denbora historiko eta arlo ugariaren inguruan. Gai bat nabarmentzekotan agiritzei buruz emandako hitzaldi sorta aipatuko dugu. Bi izan ziren, ordea, ikastaro horrek erakutsitako ahuleziak; bata, sailaren behin-behineko topagune izaera, bertan bildu zirenek ez zirelako gai izan lan-talde iraunkorra sortzeko. Alde horretatik, egokiagoa izango zen, *Historia Ikastaroari* buruz hitz egitea eta ez *Historia Sailari* buruz, baina ohiturak legea egiten duenez, Saila deitu zitzaien UEUko ikastaroak antolatzen zituzten pertsona edota taldeei eta hala jarraitu zitzaien deitzen. Kontuan izan behar da, egoera ulertzeko, UEUren baliabide urriek ez zutela aukera handirik ematen egitura sendoak sortzeko. Euskal Herriak, Franko hil ondoren, bestetik, bizi zuen aldaketa-giroak eta politika-lanek zuten lehentasuna askorentzat eta horrek ez zuen lagundu saila trinkotzen. Ez ziren gutxi Historia euskaraz landu nahi zutenek zituzten arazoak. Horrela laburbildu zituen Jaxinto Setienek: «euskal historiaren ezagutza eskasa, gizarte-zientzien parzialtasuna eta globalizazioaren eza, hiztegi tekniko bereziaren premia, ikerlanen falta gorria, euskararen presentzia motza, gizarte-zientzien irakaskuntza arazoak eta abar». Bigarren ahulezia hitzaldietan esandakoak testu-idatzira eramateko ezintasuna zen, UEUren Giza eta Gizarte-Zientzia sail gehien arazo bera. Alde handia zegoen, kontu horretan, UEUko Zientzia Zehatzen alorrekin. Multzo horretako sailek, gehiago edo gutxiago, zenbait liburu aurkezten zituzten UEUren emanaldi bakoitzean, UEUK berak argitaratutako liburuxken bitartez.

1978an, aurreko urteko ereduak jarraituz, Historia, Geografia eta Arteari buruzko bi aste beteko zituen ikastaroa prestatu zen. Goizetan, Historia-Geografia arloan lan egiten zuten argitaletxe eta taldeen aurkezpena egin zen: Gero, Ingeba, Iker, Gordailu, Etor, Jakin, UZEI, UNED eta EUTGna, besteak beste; eta Arteari eta Geografiari buruzko zenbait hitzaldi eman ziren. Arratsaldeetan, aldiz, hiru mintegi antolatu ziren, BBBn (Batxilergo Bateratu Balioanitz) eskaintzen ziren Historia,

Geografia eta Artea nola irakatsi lantzeko. Ikastaroen helburu nagusiak arlo horietan honako hauek ziren: egindakoaren eta egiten ari zenaren berria jaso, taldeen arteko harremanak erraztu, Batxilergoa eta Unibertsitatearen artean etena eragotzi, erdal unibertsitateetan eta zientzia-elkarteetan egiten ziren lanak euskalgintzara erakarri eta «Ahal dela, Unibertsitaterako lanak burutzeko, taldeak sortu eta indartu». Helburu horiek, neurri batean bakarrik, bete ziren; lan horietako asko ondoren Gordailu taldea eta UZEIren bidez gauzatu baitziren eta ez, zuzenean, UEUren Historia sailaren eskutik. Hurrengo urteetan egindako zenbait ikastaro, terminologia eta hiztegi gintzari buruz, testuinguru horretan kokatu behar dira, baita lan horren emaitza garrantzitsuena ere, UZEIk 1984 eta 1988 bitartean argitaratutako *Mendez mende* liburu bilduma, Batxilergoko ikasle eta irakasleei zuzenduta.

Bitartean, 1980an, saila berregituratu zen, ikerketari ateak irekiz. Hurrengo urteetan Agustin Azkarate izan zen Historia Sailburua, Joseba Agirreazkuenaga Iker azpisailaren arduraduna, Ramon Amundarain Irakas azpisailarena eta Joseba Intxausti Lexikografia azpisailarena. 1981an kaleratutako *Historia eta Gizarte-zientzien urtekariaren* lehen alean (sailaren produkzio idatziaren lehen emaitza zuzena) esaten zaigunez sailaren helburuak "Historialari sakabanatuak elkarganatzea eta euskal historialarien arteko koordinakuntza indartzea; Historiarako euskara normalizatu bat sortu eta finkatzea eta Historiaz euskaraz egiten diren edo egin litezkeen lanak bizkortu eta zabaltzea" ziren. Ez dira gehiegi aldatu gaur egun arte. Azkarateren ondoren, Joseba Agirreazkuenaga izan zen hurrengo sailburua.

Egitura berriak, ordea, ez zuen luze iraun eta 1982-1985 urteetako ikastaroei erreparatzen badiegu, Historia Sailaren ahuleziaz jabetuko gara: 1983an ez zen ikastarorik eman eta hurrengo urteetan 6-7 hitzaldi solte, gehienak ikerketa-lanekin lotuta. Hiru dira hutsunea azaltzeko argigarri zaizkigun arrazoiak. Alde batetik, sailaren barruan ikertzaileek hartutako pisua, ondorengo urteetan mantendu dena, irakaskuntza ertaineko irakasle eta bestelako pertsonen kaltetan. Baina ikerlarien kopurua beti txikia izan da. Bigarrenik, saileko kideen ibilbide profesionala: hauetako batzuei ezinezkoa izan zitzaien dedikazio osoz jarraitzea sailaren zuzendaritzan. UEUko barne-eztabaidek, azkenik, izan zuten bere pisua, historia saileko hainbat kide EHUrekiko harremanen aldekoak zirelako eta elkarrizketak porrot egin ondoren ezinegona sortu zelako UEUren barruan. Talde horren emaitza izan zen *Historia eta Gizarte-zientzien urtekariaren* bigarren alea, 1982ko data izan arren, 1983an atera zena. Bere aurkezpena egitean, ordea, urtekariaren beraren amaiera iragarri zen, Eusko Ikaskuntzak argitaratu behar zuen aldizkarian parte-hartzeko gonbitea luzatuz euskaraz lan egin nahi zutenei UEUko Historia saileko kideek. Eusko Ikaskuntzari zera eskatzen zioten, aldizkariaren urteko ale bat gutxienez euskaraz izatea. Baina ekarpenen faltaz baldintza hori ez zen bete.

Hirugarren belaunaldia

1986an belaunaldi berri bat integratu zen Historia Sailean, Gasteizko Historia Fakultateko ikasle eta lizentziatu berriz osatua. Mikel Aizpuru izan zen sailburua 1986 eta 1989 bitartean, honen ondoren Pruden Garzia (1990-1993), Iban Zaldúa (1994-1997) eta Eugenio Riaño (1998-2000) izan dira ardura hori izan dutenak. Ezin ahaztu,

dena den, zenbait lagunen lankidetzaz, hala nola Joseba Agirreazkuenagarena, Josu Chuecarena edota Emilio Majuelorena. Garai horretan, udako ikastaroak, urtean zehar antolatutako hitzaldi-zikloak eta Gasteizko historia fakultatean prestatutako Euskal Herriko Historiaz jardunaldiak izan dira Historia Sailaren lanaren lekuko. Hamabost urtez Saila zuzendu duen talde horren emaitzen artean dugu ikastaroei emandako sendotasuna, urtez urte, hutsik egin gabe, antolatu direlako; kasu gehienetan gai desberdinei buruzko monografikoak antolatuz, baina gai solteak baztertu gabe: 1986an Gerra Zibila, 1989an iraultza garaia eta Historiaurrea, 1990an Industrializazioa, 1991an Faxismoa, 1992an Langile-mugimendua, 1993an Nazionalismoa, 1994an Historiografia eta aldaketa ekonomikoa (Ekonomia sailarekin batera), 1995ean Militarismoa eta antimilitarismoa, 1996an Erromatarkuntza eta Irakaskuntzaren historia (Pedagogia sailarekin batera), 1997an Ekologia, Eliza eta itsasoa, aurrenekoa eta azkena berriro ere Ipar Euskal Herrian, 1998an Kirola Iruñean (Antropologia sailarekin batera) eta Historia eta Literatura Miarritzen, 1999an Frankismoa Iruñean eta Historiografia Miarritzen eta 2000. urtean, azkenik, Iruñean Sozialisten agintaldien balantzea eta Irudia eta Historia Miarritzen. Gasteizen antolatutako jardunaldien gaiak, honako hauek izan dira, 1996, Gerraosteko euskal nazionalismoa (1939-1985); 1997, Karlistadak, 1998 Ipar Euskal Herriaren Historiaz, 1999 Baztertuak Euskal Herriko Historian eta, 2001, Euzko Alderdi Jeltzalearen Historia.

Sailari egonkortasuna ematez gain, taldekideen arteko harreman eta adiskidetasunak pertsonen arteko txandatzera era egokian eta apurketarik gabe egitea ahalbideratu du, egitasmo koherentea osatuz, euskaraz lan egiteak suposatzen dituen mugak kontuan hartuz. Taldea Euskal Herrian euskaraz lan egiten duten historiagile guztiak UEUra hurbiltzen saiatu da, iritzi eta arlo desberdinetako ikerlari eta irakasleei ateak irekiz. Alde horretatik, arestian aipatu ditugun ikastaroei erreparatzea nahikoa da gaien aniztasunaz eta garaiko historiografiaren kezkekin, eta bere mugekin, zuen loturaz konturatzeko. Hitzaldi-sistemaren mugaz jabeturik, lanen argitalpena kezka handia izan da. Horren lekuko dugu 1990an kaleratutako *Historia eta Gizarte-zientzien urtekariaren* hirugarren tomoa eta urte berean sortutako *Uztaro* aldizkariaren erredakzio batzordean historiak duen ordezkariak. Produkzio-idatzia bultzatzeko ezintasuna da, dena den, talde horren hutsune nabarmenena: hitzaldi sorta zabalak, 300 saio baino gehiago, ez du bat egiten garai berean argitaratutako liburu kopuruarekin, monografia pare bat eta hiru ikastaroen hitzaldiak jasotzen dituzten bildumak: *Historia: zientzia ala literatura?* (1995), *Industrializazioa* (1995) eta *Militarismoa eta antimilitarismoa* (1997). Irakaskuntza ez unibertsitarioan ari direnak hurbiltzeko ahaleginek, urriak bestetik, ez zuten emaitza egokirik eman, salbuespen batzuk kenduta. Horien artean 1999-2000 ikasturtean antolatutako Batxilergoko irakasleen prestakuntzarako Euzko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren programa barruan (Garatun) bi ikastaro nabarmendu behar dira: Euskal Herriko Historia eta Gaur Egungo Munduaren Historiari eskainitakoak. Duela hogeita urte plazaratutako terminologia-arazoak bere horretan jarraitu zuten, historialarien sakabanaketak eta lehentasun desberdinek bigarren mailan utzi dituztelako, irakasle, ikerle eta ikasle bakoitzak bere erara erantzun baitie lanean sortutako kezka eta galderei.

Laugarren belaunaldia

Hirugarren belaunaldiko hainbat kidek UEUn aktibo segitzeaz gain, mende berriarekin laugarren belaunaldi batek, ikasketak euskaraz burutu dituenak, hartu du bere gain Historia Sailaren zuzendaritza. Irati Iciar lehenik (2000-2003) eta gaur egun Alvaro Aragón sailburu izateak agertzen duten bezala. Beraiekin batera ari dira Jaione Agirre, Xabier Alberdi, Idoia Arrieta, Karmele Artetxe, Jone Garcia, Jurgi Kintana, Patxi Lopez eta beste zenbait lagun. Pertsona-aldaketa horiek, dena den, ez dute ekarri helburu-aldaketarik, lan egiteko moduena baino, neurri batean, eta indar berrien metatzea une oro. Horren lekuko dugu dagoeneko bi libururen argitaratzea, Karlomagoren ingurukoa (2001), eta euskal historiografiaren azken joerez kaleratutakoa (2002), edota arrakasta handiz antolatutako Historiagile Euskaldunen I. eta II. Topaketak, 2000. eta 2003. urteetan. Azken urte hauetako gai nagusiak honako hauek izan dira: 2001. urtean "Nafarroa, 3000 urte: kultura eta historia" landu zen, garai historiko desberdinak eta jakintza-arlo desberdinak uztartuz; 2002. urtean Miarritze izan zen sailaren ikastaroaren egoitza eta jorratutako gaia euskal arrantzaren historia izan zen, Ternuatik bolantetara; 2003. urtean, azkenik, Iruñea izan zen berriro historiagileen biltokia eta historia musikaren bidez nola landu jorratu zen.

Ondorioa

Saileko kideek, bestetik, eragin nabarmena eduki dute Udako Euskal Unibertsitatearen bilakaeran, erakunde honen antolaketari eta garapenari dagokienean. Une desberdinetan Historia Saileko zenbait kidek lan handia egin dute UEUn nondik norakoak argitzeko orduan, bai 1980ko hamarkadetako eztabaidetan (Joseba Agirreazkuenagak bereziki), baita 1995ean egindako Kongresuan ere (Pruden Gartzia eta Iban Zaldua). Ezin ahaztu, azkenik, UEUk eduki dituen zortzi zuzendarietatik bi, Manex Goihenetxe eta Mikel Aizpuru sail honetako kideak izan direla.

Hogeita hamar urte hauetan, beraz, pertsona ugari bildu da Historia Sailaren inguruan eta udako ikastaroek goi-mailako kalitatea lortu dute urteen eta ahaleginen poderioz. Bada, ordea, oraindik, zer hobetu.